

## NOR DA MAITASUNA?

Urki Bilbao

*Ondarroa, 14 urte*

Maitasunaren bila  
abiatu nintzen batean,  
amodioaren definizioa  
kausitzen saiatuz,  
sinonimoetan besterik  
ez nintzen gelditu.

Zu eta ni,  
MAITASUNAK herdoildutako kateek  
estutzen gaituzten bi,  
bata bestea AURKITZEN saiatu arren  
ametsak batzen GAITU  
errealitateak zedarritu.  
Beraz,  
EZ nazazu amestu,  
nik ere ez zaitut amestuko...  
GUK biok begiak irekita  
dasta dezagun  
amodioaren amets BERA.

Gau malenkoniatsuetan  
Venusen erakarpenean  
soinak dantzatzea...  
burmuinetik oharkabean  
saihesten diren eleekin  
xularme oro dardaraztea...  
logelako leihoaren beiran

maitearen aurpegia  
islatzea...  
euri anpulu bakoitzeko  
amorantearen usainaren  
freskotasuna  
larruan pairatzea...  
Ez itzazu maitasunarekin nahas!  
Senak Luziferrek adina  
mozorro baititu.  
Bihotz karratuen  
arterietatik,  
poesiaren ardoz bustiriko  
latsa igarotzean  
ezpain urratuak  
malko gezekin iboilduz...  
sentimenduak horditzen dira  
eta kontzeptuak nahasten  
hodeiez osaturiko ohantzean  
lokartzeko zorian.

Amorantea  
ezkututzen da  
lurrunezko izaretan  
bere irudia aienatuz  
bihotzean su gorizko zigilua  
sentimenduak errez laga du  
bihotzean su gorizko zigilua  
bere irudia aienatuz  
lurrunezko izaretan  
ezkututzen da amorantea.

Aise erran diezazuket  
maite zaitudala,

zure begiradarekin  
argizaria lez urtzen naizela,  
gauero nire ametsetan  
desio zaitudala  
dutxaren ur beroak  
zu oroitaraziz  
libidoa ernetzen didala,  
zure atzamar pekatarien  
leuntasuna  
antsiatzen dudala,  
gure besarkada urtuetan  
denboraren nozioa  
galduz...

Aise erran diezazuket  
sentitzen ez dudanean.  
Ohartu nintzen,  
nintzen hartaz ez zinela ohartzen.  
Trunkaturiko ideiek osaturiko irudi ederregia  
ederregia baita irudimena,  
irudimena biokin bat jostatzen zen hirugarren  
maitalea  
maitalea ni neure ipuineko ez ote naizen galdetuz,  
galdetuz, lokarri estuegiak al ditudan zureganako  
zureganako ditudan imajina erratuekin  
maitemindurik bainago.

Orduan,  
itaundu diot  
ilargi gaueko gauari...  
ardo gorrizko bihotzari...  
goizaldeko kilkir hordituari...

teilatuan pasatzen den katu beltzari...  
hego-haize txistukariari...  
taberna hitsetako biolinistari...  
eta zure begi garden sosegatuetan  
irakurri dut espero nuen ihardespena;

**MAITASUNA EZ DA EXISTITZEN  
GEUK ASMATU EZIK!**